



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Prestakuntza Espezializatuko Programa
Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)

Alergologia

Gaitasunetan oinarritutako Prestakuntza Espezializatua Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea

**Irakaskuntza-ikuspegia:
Zazpi gaitasun-eremuetan oinarritutako lanbide-profila**



Prestakuntzaren Planifikazio-Garapen-Ebaluazioan koherentzia

Konpromisoa: Erantzukizun sozialean oinarritutako irakaskuntza-akreditazioa

Erreferentzia: Morán-Barrios J. **Un nuevo profesional para una nueva sociedad. Respuestas desde la Educación Médica: la formación basada en competencias.** Rev. Asoc. Esp. Neuropsiq. 2013; 33 (118): 385-405.

<http://www.revistaen.es/index.php/aen/article/view/16614/16454>



Servicio de Alergología y Unidad de Formación Especializada del Hospital Universitario Cruces.

Barakaldo, Bizkaia. [CC BY-NC-ND](https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/)



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



ALERGIA

ALERGIA zerbitzuak prestakuntza integrala eskaintzen du patologia alergikoko pazientearen ezagutzan, diagnostikoan eta tratamenduan.

Alergologiatzat zera ulertzen da: immunologia-mekanismoak, berezkoak dituen tekniken bidez, sorturiko patologiaren ezagutza, diagnostikoa eta tratamendua biltzen dituen espezialitate medikoa. (BOE 241 zk., 2006-10-9).

- Nor gara
- Non gaude
- Prestakuntza-eskaintza
- Prestakuntza-ibilbidea (Errotazioak)
- Ikerkuntza
- Prestakuntzaren ebaluazioa



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

**Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)**



Nor gara



Atalburua:
Pedro Gamboa Setién dk.



Tutorea:
Aritza Segurola Azkarate dk.

Zerbitzuak, 1986an sortua, espezialitatearen programa guztiaren prestakuntza eskaintzen du, Espezialitateen Nazio Batzordeak diseinatutakoaren arabera. 1989. urtetik, espezialistak prestatzeko akreditazioa du eta urtean egoiliar bat hartzeko ahalmena.

28 urte hauetan, zerbitzua Claudio Cid de Rivera doktoreak gidatu du (1986-2010) eta ordutik gaur egunera arte, Isidro Liarte Ruano doktoreak. Zerbitzuaren garapenean jazotako gertaerarik aipagarrienak hauek dira:

- Ikasketa zentro anitzekin lankidetzatza
- Argitalpenak nazioarteko aldizkarietan
- Ospitaleko diziplinarteko batzordeetan parte-hertzea



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



Honako hauek osatzen dute plantilla:

- ❖ Atalburua: **Pedro M. Gamboa Setien**
- ❖ 6 Mediku adjuntu:
 - Ignacio Jáuregui Presa
 - María Dolores Martínez Antón.
 - Yolanda Seras Miera
 - Aritza Segurola Azcarate
 - Eduardo García Lirio
 - Javier Sánchez de Vicente
- ❖ Idazkaria: Yolanda Redondo Abascal (94.600.6468).
- ❖ Erizaintzako unibertsitate-diplomatuak:
 - M^a Dolores De Marcos Rodríguez
 - Ainara Arza Bilbao
 - Leticia Velasco Ruiz
 - Idoia Arteche Guilarte
 - Verónica Blanco González
 - María Isabel Riesco Gutiérrez

Zerbitzuak honako **asistentzia-arlo edo -unitate** hauek ditu:

- ◆ Sei kanpo-kontsulta ospitalean
- ◆ Immunoterapiako Unitatea
- ◆ Medikamenduekiko desentsibilizazio Unitatea
- ◆ Angioedemako Unitatea
- ◆ Proba diagnostikoen laborategia

Urteko jarduerak hemen daude:

[Ospitalea > Urteko Memoria Osorik “Arlo Klinikoak”](#)



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

**Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)**



Non gaude

Alergologia Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean dago:

Gurutzetako plaza z.g. Barakaldo 48903.

Barakaldo, Bizkaia

Ospitalea [Google Maps](#) aplikazioan ikusi.

Zerbitzuaren idazkaritza 4. solairuan dago, kontsultak dauden aldean.

Administrazio-idazkaria: Yolanda Redondo Abascal

Harremanetarako Telefonoa: +34-94.600.6468

Posta elektronikoa:

yolanda.redondoabascal@osakidetza.eus





Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

**Guruztetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)**



Prestakuntza-eskaintza

Gure antolakuntza eta asistentzia-jarduera handiari esker, Alergologia espezialitateko alderdi nagusi guztietan espezialisten prestakuntza eskaini eta bermatu dezakegu.

- a. Asma
- b. Errinitisa
- c. Medikamentuei alergia
- d. Elikagaiei alergia
- e. Himenopteroen pozoitari alergia
- f. Anafilaxia
- g. Urtikaria/angioedema
- h. Angioedema
- i. Dermatitis atopikoa
- j. Ukipen-dermatitisa

Horiez gain, dedikazio berezia daukagu patologia zein prozedura konplexu hauetan:

1. Elikagaiei alergia azterketa (test diagnostikoak, esposizio eta desentsibilizazio testak...)
2. Medikamentuei alergia azterketa (test diagnostikoak, esposizio testak, elikagaiekin desentsibilizazioa...)
3. Immunoterapia inhalagailu eta elikagaiekin
4. Medikamentu biologikoekin tratamendua (omalizumab)

Informazio gehiagorako, gure zerbitzu-zorroa hemen ikus daiteke:

[Ospitalea > Zerbitzuen Katalogoa > ALERGOLOGIA](#)

Irakaskuntza Batzordeak [ikastaroak \(ikusirik irakaskuntza jarduerak\)](#) antolatzen ditu espezialitate guztiek komunean dituzten oinarriko prestakuntza osatzeko. Horietako ikastaro gehienak ezinbestekoak dira azken titulua lortzeko.

Ospitaleak [Saio orokorrak \(ikusirik irakaskuntza jarduerak\)](#) antolatzen ditu hilean asteazken batean edo bitan, 8:30ean Areto Nagusian. Saio horiek funtsezkoak dira prestakuntza integrala lortzeko, espezialitatea edozein izanda ere, alde batetik, interes bereziko kasu klinikoei buruz ikasten delako, bestetik, Ospitalearen, zerbitzuen edo unitateen funtzionamendua ezagutzeko balio dutelako – bai eta beren arteko erlazioa zein den ere- eta bukatzeko, hainbat batzordeen jarduera garrantzitsuen berri ematen dutelako.



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



Prestakuntza ibilbidea (errotazioak)

1. urtea:

- a. Alergia zerbitzua: hilabete bat
- b. Larrialdi orokorrak: bi hilabete
- c. Kardiologia zerbitzua: bi hilabete
- d. Pneumologia zerbitzua: bi hilabete
- e. Erradiologia zerbitzua: bi hilabete
- f. Barne-medikuntza zerbitzua: bi hilabete

2. urtea:

Alergia zerbitzua

3. urtea:

- a. Alergia Pediatrikoko unitatea: sei hilabete
- b. Dermatologia zerbitzua: 5 hilabete
- c. Otorrinolaringologia zerbitzua: hilabete bat

5. urtea:

Alergia zerbitzua

Egoiliarra kanpo prestakuntza aldiak hemengo edo atzerriko zentroetan egin ditzake. Prestakuntza Batzordeak eta gure zerbitzuak zentro hauetako informazioa ematen du:

1. Santiago Apóstol Ospitalea (in vitro teknikan prestakuntza)
2. Kordobako Reina Sofía Ospitalea (Himenopteroen pozoiarekin immunoterapia ikastaroa)
3. Europar Batasuneko Ospitaleak. Azken prestakuntza egonaldia South Manchesterreko Unibertsitate Ospitalean.

Espezialitateko **prestakuntza ikastaro espezifikoak** hauek dira:

1. Alergologia alorrean in vitro teknikei buruzko ikastaro teoriko-praktikoa (Abelló)
2. Alergologia alorrean in vitro teknikei buruzko ikastaroa (Bial Arístegui)
3. Immunoterapiaren erabilera praktikoa alergenoen bidez (Stallergens)



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

**Guruzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)**



Ikerkuntza

[BioCruces Ikerkuntza Institutuaren aldetik](#) ikerketarako bermea du Ospitaleak.

Ikasketa zentro anitzekin elkarlanean aritu gara. Azken saioa: an open trial of assess the tolerability of AVANZ mite mix immunotherapy (2013).

Industria farmazeutikoarekin ere elkarlanean aritu gara saiakuntza klinikoak egiten.

Egoiliarra pixkanaka sartzen da ikerketa lanetan eta prestakuntzako bigarren urtea bukatzen duenean doktorego-tesia hasi ahal izango du.

Jarduera zientifikoari buruzko informazio zehatzagoa hemen:

[Ospitalea > Ospitalearen Urteko Memoria](#)



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



Prestakuntzaren ebaluazioa

Ebaluazioa ikasketaren motorra da eta ikasketa erraztera zuzenduta dago, beraz, indarrak eta ahultasunak antzeman eta hobekuntza planak ezarriko ditu. **“Ebaluazio formatiboa”** deitutako ebaluazio mota horretarako, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleak gaitasunetan oinarrituta dauden zenbait metodo kualitatibo erabiltzen ditu. Behean aipatuko diren metodo horiei esker, informazio zehatz bat iturri anitzetik lortu eta hainbat ikuspegi izan ditzake (gainbegiralearen ebaluazioa, norberak egindako hausnarketa eta autoebaluazioa). Informazio horrekin, **Urteko Ebaluazio Batzordeak** txosten bat lantzen du aho batez, eta bertan, egoiliarren indarrak eta hobetzeko arloak (egongo balira) adierazten dira. Gaitasunetan oinarritutako txosten honek ezinbestean egindako ikastaroen egiaztagiriarekin batera **“Egoiliarren Urteko Txostena”** osatzen dute. Tutorea prestakuntza prozesu guztiaren kudeaketaren arduraduna da eta Urteko Txostena emango dio ikasleari.

Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Alergia Zerbitzuko BAMEek (Barruko Mediku Egoiliarrak) lortu beharreko gaitasunak, Ospitaleko irakaskuntza Batzordeak zehaztutakoaren arabera:

1. Balio profesionalak, jarrerak, jokabidea eta etika.
2. Pazientea zaintzea eta trebetasun klinikoak.
3. Ezagutza medikoak / medikuntzaren oinarri zientifikoak.
4. Komunikazioa
5. Osasun sistemaren testuinguruan oinarritutako praktika (Osasunaren sustatzailea eta Baliabideen Kudeatzailea).
6. Ikaskuntzan eta hobekuntzan oinarritutako praktika (Analisi kritikoa eta ikerketa).
7. Informazioaren erabilera.

Asistentzia- eta irakaskuntza-gaitasunak, espezialitatearen beraren ikerketa gaitasunekin batera, hemen biltzen dira:

[BOE 241, 2006ko urriaren 9a, astelehena, Alergologia espezialitateko programa ofiziala](#)



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

**Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)**



Gurutzeta Unibertsitate Ospitaleko ebaluazio sistema orokorra¹.

[Irakaskuntza Batzordeak](#) eta Gaitasunen Ebaluazio Batzordeak ebaluazio sistema zuzentzen dute. Sistema hori Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea 2008. urtetik garatzen joan den [“Gaitasunetan oinarritutako Prestakuntza Espezializatua”](#) proiektuaren parte da. [Ebaluazio metodoak](#) hauek dira:

- Txandatze bakoitzaren Gainbegirale zuzenaren ebaluazioa, Gaitasunetan oinarritutako formulario baten bidez (Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko berezko eredia)
- Tutorearekin aldi behingo elkarrizketak (gutxienez urtean bi)
- Autoebaluazioa
- Urteko Memoria (Egoiliarren Liburuaren baliokidea da) bi alderdi hauek sartzen ditu: jasotako gaitasunen gaineko hausnarketa eta asistentzia-, irakaskuntza- eta ikerketa-jardueren zein lanbidearekin erlazionatutako beste ekintzen kuantifikazioa
- Gaitasunetan oinarritutako Tutorearen urteko txostena
- Ebaluazio Batzordearen urteko balorazioa
- Irakaskuntza Batzordeak antolatutako derrigorrezko ikastaroak egitea
- Gaitasunetan oinarritutako urteko banako txostena

Egoiliarren ebaluazioa jasotako Prestakuntzaren gainean.

- Urtero, apirilean, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko egoiliar guztiei gogobetetze inkesta bat bidaltzen die.
- Bi urtean behin, otsaila eta martxoa bitartean, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Irakaskuntza Batzordeak gogobetetze inkesta bat bidaltzen du. Inkesta hau orain dela 20 urte egiten da. Emaitzak zerbitzuei eta egoiliarrei jakinarazten zaie.

Irakaskuntza Batzordeak onartutako Alergia zerbitzuko berezko metodoak.

Zerbitzuak ebaluazioak egiten ditu metodo hauekin:

- Tutorea eta egoiliarren arteko aldi behingo elkarrizketak
- Gaitasunen balorazioa (jarrera, balio profesionalak): pazienteekin eta familiekin komunikazioa, trebetasun klinikoak, ezagutza medikoak, baliabide medikoen zentzuzko erabilera eta informazioaren erabilera (bilaketa eta interpretazioa)
- Urteko Memoria

¹ Morán-Barrios J, Amutio E, Barbier L, Carrasco A, Gil-Lemus MA, Gómez B, Iriberry M, Padilla L, Rodríguez-Iñigo MA, Saá R, Larrañaga I, Nieto J, Udaondo J y González-Larragán S. Evaluación del residente basada en competencias. El modelo del Hospital Universitario de Cruces. XXI Congreso de la Sociedad Española de Educación Médica Madrid 2013. FEM 2013; 16 (Supl 2): S62. Disponible en: <http://www.sedem.org/resources/abstractsSedem2013.pdf>.



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

**Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)**



ALERGIA ©